

MAIALEN LUJANBIO

Kultur-sortzaile eta -hartzaile “normal” izateko aukerarik badugu, euskaldunok?

2025-10-28



PLAZA

Normalaren eta ez-normalaren artean ez dago orekarik, baina horrek ez du esan nahi bi ikuspegietatik edaten ez dugunik: Maialen Lujanbiok hizkuntza gutxitu bateko kultur-sistemaren, hau da, gure-gurea dugun kultur-sistemaren onurak eta ajeak deskribatu zizkigun, solasaldi interesgarrian.

1. Kultur sistema “ez normala” da gurea, definizioz. Hala izan behar du, eta, gainera, hala delako harro egon behar dugu. Gauzak egiteko modu konkretu bat eransten digu horrek, hizkuntza hegemoniko bateko kultur-sistemetako kideek ez daukatena. Onuragarria da hori: euskal kulturgintzan daukagun sormenerako gaitasunak, aniztasunak, gertutasunak zerikusituzena dute egiten dugun guztian.

2. Baina, noski: baditugu gure ajeak. Gure kultur sistemaren egitura (hala deitu badiezaiokegu, daukagun horri) oso ahula da. Sortzaileen eta hartzaileen arteko bidea, azpiegitura, hedabideetan (bereziki erdaldunetan) daukagun oihartzuna, izan beharko lukeena baino prekarioagoa da. Hori ere gure ezaugarri bat da, azken hamarkadetako politikek eragindakoa. **Atzera begira, esan dezakegu herri-mugimenduen bultzadarik eta sostengurik gabe ezinezkoa izango litzatekeela gaur egun dugun egoerara iristea.**

3. Euskaraz sortzea, ez da sortzea bakarrik. Euskaraz sortzen denean, beste zerbait ere egiten da, eta beste zerbait horrek hizkuntza-komunitate zehatz baten parte izatearekin du zerikusia. Adibide garbia da bertsolari txapelketa nagusiarena: bertsolariek ez lukete txapelketan pasa behar den “mixeriarik” pasako (hau da: egin beharreko lana, jasan beharreko tentsio eta sufrimendua, “epaitu ezin den” arte-sorkuntza batean aritzea), sortzen bakarrik ariko balira. Beste lan bat egiten ari direlako ere egoten dira hor.

4. Sormenez ari garela, eta hizkuntzazko sormenez bereziki (bestelako sormen-moduek hizkuntzarekin duten harremana ere azaldu zen solasaldian), azkenaldian errebindikazio modura azaldu den “euskara bastardoaren” ereduarekin zalantza azaldu zuen Maialenek. Euskarak behar du nahastea, eta belaunaldi berrientzat gero eta naturalagoa da hori, baina arrisku bat du: **badugu behar adina material, berau erabili eta zentzu horretan manipulatzeko? Hau da, abiapuntu sendorik badugu, ondoren bide “bastardoetara” lerratzeke?**

MAIALEN LUJANBIO

Kultur-sortzaile eta -hartaile “normal” izateko aukerarik badugu, euskaldunok?

2025-10-28



PLAZA

Normalaren eta ez-normalaren artean ez dago orekarik, baina horrek ez du esan nahi bi ikuspegietatik edaten ez dugunik: Maialen Lujanbiok hizkuntza gutxitu bateko kultur-sistemaren, hau da, gure-gurea dugun kultur-sistemaren onurak eta ajeak deskribatu zizkigun, solasaldi interesgarrian.

5. Sistemaren beste aldean daude hartaileak. Eztabaida polita piztu zen saioan zehar, zentzu horretan. Ditugun hartaileen araberrako sormena daukagu? Edo, bestela esanda, sortzen dugunean hartaileak kontuan hartzen ditugu? Euskaraz den guztia gustuko izan behar dugu, edo interesatu behar zaigu?

Maialen Lujanbiok plankton-aren ideiarekin plazaratu zuen bere iritzia. **Alde guztietan egon behar dugu, presentzia izan behar dugu**, askotarikoak izan behar dugu. Gero, bakoitzak ikusiko du zeri eta nola heldu.

6. Gure herrian ditugun gainerako hizkuntzekiko harremanaz galdetuta, harremana guztiz asimetrikoa dela esan zigun Maialenek. Asimetrikoa baino, norabide bakarrekoa, kasik: euskaldunok erdia bagina bezala tratatzen gaituzte (txikiak, itxiak, gainfinantziatuak...) eta berez bikoitza bada. **Guk sarbidea dugu gainerako hizkuntzetan sortzen denera, eta, horren aldean, euskaraz ez dakitenek, ez dute gurera sarbiderik. Ikusezinak gara beraientzat. Beraz, zein da irekiagoa?**